Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero 377

Uztailak 1, 2020

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Jaietako Argazkiak
4-5 Jaietako Argazkiak
6-7 San Martzial eguneko argazkiak
8 Elkarrizketa: Juncal Eizaguirre Kultura
9 Oiasso Museoa
10 Tortilla Irundarra
11 Haurren lanak / Denborapasak
12 Gazteen lanak
13 Beti Gazte: Aurreratu Elkartea
14 iGazte
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

caser residencial

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1918. urteko uztailaren 7an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariaren zenbakia duela 100 urte gutxi gorabehera Irunen albiste ziren gertakariak irudikatzeko aproposa izan daiteke. Aldizkariaren lehen artikuluan Berakoecheak Irunen hezkuntza sistemak zeuzkan gabeziak aipatzen ditu, goi-mailako ikasketak burutzera iristen ziren ikasle kopuru txikiaz ohartaraztearekin batera. Mañuelek Arkalek, Mañuel Picaveak, idatzitako gutunari erantzuten dio, aurreko zenbakia berari buruz idatzitako gutunarengatik eskerrak emateko. "Acusando recibo... " tituluarekin, Angel Maria Castellek aldizkarira bidalitako gutuna argitaratzen da, bere lagun Valverde eta Irungo alardearekin lotutako oroitzapenak partekatzeko. Jarraian, artikulu laburren bilduma baten bitartez 1918. urteko San Pedro eta San Martzial jaien gertakari nagusiak laburbiltzen dira, alarderik gabeko jai euritsuak izan zirela gogoratuz.

Kirol kronikan, hiriko festen inguruan antolatutako kirol ekitaldien errepaso egiten da, aspalditik Irungo jaiekin loturik kirol ekintzarik antolatzen ez zela aipatuz. Hortaz, Real Union futbol klubaren partiduak, "Cross Country"-a, estropadak edo ibaian antolatutako igeriketa txapelketaren emaitzak argitaratzen dira. "Dos Cartas" atalean, berriz, El Bidasoa eta Aldabe aldizkarietako azken zenbakietan argitaratutako kolaborazio gatazkatsuez hitz egiten da. Ondoren, Arragua baserrian lanean ibili zen Austiña izeneko emakumearekin lotutako istorioak kontatzen dira. Jarraian, aurreko zenbakian Hondarribiko kasinoaren berritze lanen inguruan argitaratutako artikuluaren inguruko zenbait azalpen ematen dira, gaizki-ulertuak saihesteko.

Irungo festen errepaso sakona egiten duten kronika irakurri ostean, Elizondoko musika-bandak Iruñeko txapelketarako bidaia ordaintzeko egindako diru-bilketaren ekarpenen zerrenda argitaratzen da. Azkenik, "Hace años...", "Ecos de sociedad" eta "Noticias" atal ezagunekin amaitzen da orrialdea, publizitate iragarkiz betetako azken orrialdearen aurretik.

ARGAZKIAK:
G38499: Merkatuaren plaza, ezkerrean Udal Institutu Politeknikoaren egoitza izan zena ageri delarik.
G38399: Irungo erdigunearen argazkia XX. mendearen hasieran, Ibaietako gainetik ateratako irudian.
G57785: Irungo zezen plaza, Mendibil inguruan kokatuta egon zena 1910. eta 1920. urteen artean.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Jai ezohiko batzuek Irunen utzitako irudiak

2020. urteko San Pedro eta San Martzial jaiak normaltasun berriak markatutako murriztapen eta segurtasun neurriengatik markatuta egon dira. Festa garaian ohikoak diren jende pilaketak saihesteko, hiriko elkarte kulturalek Irungo kaleetan antolatu ohi dituzten jarduerak era nabarian murriztu dira. Horrela, hiriko balkoietako apaingarriak eta sare sozialen bitartez antolatutako ekitaldi birtualak izan dira aurtengo festetako protagonista nagusiak. Dena den, irundarrek jai egunak modu ezberdin batean ospatzeko modua topatu dute, festek argazki berezi eta ezohikoak utzi dituzten urte honetan.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
✓ Salmenta-Alokairuak
✓ Promozio berriak
✓ Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Aldatu zure bainera
dutxa batengatik
Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa
Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.
¡Guztia 2 egunetan!
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Pelegrin de Uranzu 9 (plaza Urdanibiaren ondoan) - 20304 Irun
943 615 184 / 687 572 920
bainu.irun@gmail.com
BAINU

JECA
JECA
JECA
Serapio Mujika Kalea, 5. Irun - 943 613932

22 Academy
22academybaile.com 943 50 98 94

HAMAIKA
Hobeto bizitzeko irtenbideak
ZURE ETXEA ERAIKIZ
hamaika.com (+34) 943 64 64 12

TXINTXO
Hurbildu zaitez gure pintxoak probatzera
943 10 33 56
Dario de Regoyos Kalea, Irun

Alarderik gabeko San Martz

2020. urteko ekainaren 30a irundarrek urte luzeetan gogoratuko duten San Martzial egun ezohikoa izango da. Normaltasun berriaren inguruko neurrien ondorioz, ekaineko azken egunean hirian antolatzen diren bi alardeak bertan behera gelditu baitziren.

Alardeak hiriko jai egun handian duen protagonismo berezia dela eta, eguneko lehen ordutik San Martzial egunak hasiera desberdina izan zuen, irundarrek Alborada zein Dianekin esnatu eta argitu berri zen eguneko lehen doinuak gertutik entzuteko aukerarik izan ez zutelako. Egunak aurrera egin ahala, zapi eta txapela gorrien artean, maskarak eta gel hidroalkoholikoa festa eguneko osagarri berriak izan ziren. Goizeko 8:00etan

Alarde Tradizionaleko ordezkariak Aldabe mendira prozesioan igo ziren boto betetzeko, eguerdiko 12:00etan Udalbatzak San Martzial ermitaren parean botoa bete zuen bitartean Hiriko erdigunean kokatutako bozgorailuek tarteka Irungo jaietako musika zabaltzeko ahalegindu ziren arren, ezinezkoa izan zen San Martzial egun ezohiko baten doinu bitxia ordezkatzea.

Behin jai egun handia amaituta, hiritarrek hurrengo urteko festak iristeko atzera kontaketa hasteko ohitura badute, aurten ilusio eta gogo bereziz itxarongo dute hurrengo urteko San Pedro eta San Martzial jaiak, 2021. urteko jaiak normaltasunez ospatzeko esperantzarekin.

Restta
Diseinu grafiko eta web diseinuko estudioa
943 61 94 89 - 645 009 317
www.resttaestudio.es
@resttaestudio

ZURE ENPRESA EZAGUTZERA EMAN NAHI DUZU?
Zure markaren identitate bisuala diseinatzen dugu. NOLA?
- Zuretzako egokienak diren koloreak aukeratzen ditugu
- Tipografien konbinazio egokiena aukeratzen dugu zuretzako
- Logotipoa formatu guztietan diseinatzen dugu
- Zure sare sozialen edukietarako txantiloiak sortzen ditugu
- Zure markaren izaera islatuko duen paper-gauzen sorta ekoiztuko dugu
- Zure enpresaren webgunea neurrira egingo dugu

zial egun historikoko irudiak

la BIO teka

Denda ekologikoa

Garputz konposaketaren analisia

HEYQNUT - Fruitu lehor krema

Aukeratutako produktu ekologikoak

Produktu onenekin beteriko zure ECOBOXa hilabetero jaso ezazu

bioteka.es Beraketa 15, Irun 943 63 04 68

Juncal Eizaguirre, Kultura arloko ordezkaria:

“Arrazoi ezberdinengatik urte historikoa izan da”

San Pedro eta San Martzial jai ezohiko batzuk ospatzeko Irungo Udaleko kultura arloan lan egiteko modua goitik behera egokitu behar izan da. Behin 2020. urteko jaiak amaituta, Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak hiriko jaien balorazioa egin du.

Ekain desberdin honetan Irungo hiriak jai ezberdinak izan ditu?
Bai, arrazoi ezberdinengatik urte historikoa izan da. Kultura arlotik, argi geneukan orain arte bezala hiriko festak ospatzea ezinezkoa izango zela. Hala ere, hiriarentzako oso egun garrantzitsuak direnez, imajinazioaren laguntzarekin jaietako egitarau ezberdin bat sortzeko ahalegina egin dugu ekainaren 23tik uztailaren 1era ekintza ezberdinak proposatzeko.

Noiz hasi ohi zarete sanmartzialak antolatzen?
Urtarrilean hasi ohi gara jaietako programa antolatzen. Hiriko jaietan zehar ekintzak antolatu ohi dituzten taldeei proposamenak aurkezteko deialdia zabaltzen diegu. Hortaz, martxorako aurtengo festetarako lehen zirriborroa prest geneukan, baina, pandemia hirira iritsi zen arte. Maiatza amaieran ekintzen antolatzaileekin bildu ginen haien iritziak jasotzeko, antolaketarekin jarraitzeko asmorik zuten jakin edo ekintzak nola egokitu zitezkeen jakiteko. Bilera hartan aurten kalean zuzenean ekintzak antolatzea ezinezkoa izango zela erabaki genuen. Dena dela, eskertzeko izan da hiriko elkarte guztiek egoera honen aurrean erakutsitako erantzukizuna.

Zaila izan da programa momentuko egoerara egokitzeko modua aurkitzea?
Lehenik eta behin, egoera zein zen ulertzea izan zen guretzat zailena. Horrela, tristura alde batera utzi eta prestatutako egitarauarekin aurrera jarraitzea ezinezkoa zela onartu behar izan genuen. Zailagoa izan da egoera honetan 30 ekintza antolatzea, normalean egiten ditugun 100 ekintzak prestatzea baino. Izan ere, oso denbora gutxian antolatu den zerbait da. Gainera, kontutan izatekoa da ekintzak duela hilabete antolatu zirela, beraz, zaila zen ekaineko hilabetearen amaieran zein egoeran egongo ginen imajinatzea. Orain normaltasun berria estreinatzen ari garen arren, programa zentzudun bat eratzea izan zen gure helburua, jende pilaketak saihestu eta biztanle guztien segurtasuna bermatu ahal izateko.

“Zailagoa izan da egoera honetan 30 ekintza antolatzea, normalean egiten ditugun 100 ekintzak prestatzea baino”

Nola egokitu da Kultura arloa lana aurrera atera ahal izateko?
Hasieran konfinamenduan zehar etxetik lan egin behar izan genuen, aurrez aurreko bilerak egitea ezinezkoa zelako. Era honetan lana aurreratzea zailagoa izan den arren, egia da teknologia berriek lana asko erraztu digutela. Bilera telematikoen bitartez antolatu dugu guztia, beti ere, arloko langileen arteko harreman estua galdu gabe.

Erlojuz kontra lan egin beharrak presioa handitu du?
Bai, asko gainera. Egunak aurrera egin ahala gauza berriak edo hobekuntzak bururatzen zitzaizkigun, baina, ezinezkoa da dena azken momentuan prestatzea eta erabakiak azken egunean hartzea, denbora behar baita gauzak ondo antolatu ahal izateko. Horregatik, azken momentura arte lanean jarraitu behar izan dugu programan iragarritako ekintza guztiak findu eta segurtasun neurri guztiak betetzen zituztela bermatzeko.

Inguruko hiri eta herrietako udalek haien festetara begira hartutako erabakietan oinarritu zarete?
Kasu honetan, Irun ereduetako bat izango dela uste dut, jaiak udara hasieran ospatzen dituen lehen hirietako bat garen aldetik. Hala ere, hurbileko hiriekin kontaktua mantentzen dugu, adibidez, Hondarribiarekin, edo antzeko ezaugarriak dauzkaten hiriekin. Irunen gauzak modu batean egin arren, egoera oso aldakorra denez, udaran zehar inguruko herrietan bestelako ekintzak edo neurriak hartu daitezkeela ulertzen dugu.

Zein izan da hartu beharreko erabaki zailena?
Gogorrena, agian, hiriko elkarteekin egindako bilera izan zen, bertan ikusi bainuen benetan ezinezkoa zela ohiko jarduerekin aurrera jarraitzea. Izan ere, antola- tzaile askok tristuraz azaltzen zuten haien ekintzak antolatzeko baliabide nahikorik ez zutela edo ezinezkoa zela jarduerak beste modu batean antolatzea. Dena den, elkarteetako ordezkariek erakutsitako jarrera arduratsuak poztu gintuen, egoera ulertzen zutela erakutsi baitziguten.

Antolatutako ekintzek segurtasun neurri bereziak behar izan dituzte?
Ekintza gehienak online egin diren arren, aurrez aurre egin diren ekintza gutxiak era berezian kontrolatu behar izan dira. Dena dela, jai egunetan zehar, pertsona bakoitzaren ardura izan da ezarritako segurtasun neurri guztiak errespetatzeko gakoa.

Aurtengo jaietarako prest zenituzten ekintzak, datorren urtera atzeratuko dituzue?
Adibidez, aurten kontzertua grabatzeko aukera emateaz gainera, kontzertuetarako aukeratuak izan ziren bertako taldeei hurrengo urtean berriro hautaketa prozesuan parte hartzeko aukera emango diegu, normalean egiten ez den zerbait.

Oiasso museoak erromatar sukaldaritzaraino denboran atzera egiteko aukera eskainiko du udako hilabeteetan zehar

Irailaren 30era arte bisitatu daiteke euskal gastronomiaren bilakaerari buruzko erakusketa

Oiasso Erromatar Museoak "Kostaldeko Euskal Sukaldaritza. Erromatar Garaitik Abangoardiara" erakusketa eskainiko du udako hilabeteetan zehar. Erakusketak erromatar sukaldaritzak eta ezagutzak egungo euskal gastronomian izandako eragin nabarmena islatzeko helburua du. Gainera, Iñigo Lavado, Félix Manso eta Gorka Txapartegi eskualdeko sukaldariek egungo sukaldaritzaren adibideekin osatu dute erakusketa.

Aizpea Goenaga Oiasso Erromatar Museoko arduradunak azaldu duenez, erakusketa apirilean inauguratzekoa zen, baina, alarma egoeraren ondorioz, erakusketaren inaugurazioa atzeratu behar izan zuten. "Oso garrantzitsua da erakusketa hau martxan jartzea, museoa berriro martxan dagoela erakusten baitu", adierazi du Aizpea Goenagak. Hala ere, pandemian zehar museoak "online" jarraitu du lanean eta proposatutako egitasmoek arrakasta handia izan dute museoaren arduradunak azaldu duenez.

Erakusketak K.a II. mendera garraiatuko ditu bisitariak, hain zuzen ere, baskoiak erromatarren presentzia nabaritzen hasi ziren garaira. Horrela, erromatarren sukaldaritzak euskal gastronomian izandako eragina aztertzeko ibilbidea proposatzen du Oiasso Erromatar Museoak. Izan ere, Erromaren globalizazioak mundu mailako eragina izan zuen, momentura arte ezezagunak ziren produktu eta sukaldaritza tresnen erabilera zabaldu baitzuen. Ekarpen honek sukaldaritzaren garapena lagundu zuen, berrikuntza teknikoen garapenekin batera, gaur egun euskal gastronomia mundu mailako sukaldaritzan erreferente gisa kokatzea ahalbidetu duena.

Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariaren hitzetan, "erakusketa honek udako hilabeteetan zehar museoan eskaintzak kulturala izango dugula bermatzen digu". Erakusketaren abiapuntua sukalde erromatarrak diren arren, euskal gastronomiak ordutik gaur egun arte izandako bilakaera eta aldaketak aztertzen dira. Horrela, Iñigo Lavado, Félix Manso eta Gorka Txapartegi sukaldariek arrainen errezetak partekatu dituzte erakusketan, euskal kostaldeko sukaldaritzaren zaporeen eredugarri diren hiru errezeta. Iñigo Lavado sukaldariak azaldu duenez, "ohorea da eskualdeko sukaldaritzaren ordezkari gisa erakusketa honetan parte hartzeko aukera izatea. Félix Manso sukaldariak azpimarratu du, "erromatarrek gastronomiari egindako ekarpenak gogoratzea funtsezkoa iruditzen zait".

> **"Oso garrantzitsua da erakusketa hau martxan jartzea, museoa berriro martxan dagoela erakusten baitu"**
> Aizpea Goenaga, Oiasso Erromatar Museoaren arduraduna

Luisa López erakusketaren komisarioak azaldu duenez, museoan erakusketaren inguruan tailer, hitzaldi eta pintxo-potearekin amaituko diren bisita gidatuak antolatzeko asmoa dute. Beti ere, normaltasun berriak markatutako segurtasun neurri guztiak errespetatuz. Gainera, Instagram sare sozialaren bitartez erakusketarekin lotutako lehiaketak eta errezetak partekatuko dira erakusketaren edukia osatzeko.

Oiasso berrikuntzen sarbide

Luisa López komisarioak azaldu du, "Erromatarrek ekarpen garrantzitsuak egin zituzten, eraikuntza eta zuzenbideaz gainera, gastronomiaren inguruan". Oiassoko portua itsas merkataritzari esker berrikuntza gastronomikoen sarbideetako bat izan zen. Era honetan, produktu, sukaldaritza teknika eta sukalde tresna berriak iritsi ziren garai hartako Oiassora. Oliba-olioa, "garum" saltsa, gazitutako arrain zein haragiek, basoetan bildutako fruituek eta bestelako laborantzek osatzen zuten inperio erromatarraren dieta, ondoren, mundu osora zabalduko zena. Arraina zen erromatarren dietako oinarrizko elikagaietako bat.

Neurri bereziak

Oiasso Erromatar Museoa udako ordutegiarekin lanean ari da. Hau da, asteartetik larunbatera 10:00etatik 20:00etara eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara. Hortaz gain, museoak Covid-19aren ondorioz agintariek zehaztutako segurtasun eta higiene neurri guztiak betetzen ditu. Neurri berezien artean, museoaren edukiera erdira murriztu da, instalakuntzetara gehienez 180 pertsona sartu ahalko direlarik. Museoaren barruan maskarak erabiltzeaz gainera, eta pertsonen arteko bi metrotako distantzia errespetatzea ezinbestekoa izango da.

Sarrera orokorraz gainera, uztailaren 7tik aurrera astearteetan 11:00etan eta ostegunetan 18:30etan erakusketaren xehetasun guztiak ezagutzeko bisita gidatuak egingo dira. Bisita gidatu bakoitzean gehienez 15 pertsonek parte hartu ahalko dute.

Tortilla Irundarra berriro ezagutarazteko egitasmoa

Inaxio Muguruza Atalaia jatetxeko sukaldaria eta Anaka Kofradia Tortilla Irundarra ezagutarazteko lanean dabiltza. Orain dela 4 hilabete ekin zioten irundar gastronomiako plater honen errezeta berreskuratu eta berriro eskualdeko sukaldetara eramateko helburuarekin. Momentuz, Tortilla Irundarra Atalaia jatetxeko neguko menuan dastatu daiteke.

Tortilla Irundarraren lehen erreferentzia 1930. urtekoa da, Ignacio Domench sukaldari katalanaren "La Cocina Vasca" liburuan aurkitzen den errezetarekin. Ondoren, 1964. urtean, Euskal Gastronomiaren Kofradiaren Buletinean, José María Busca Isusi presidentea zenean, Bigarren urteko 1 Koadernoan, Ignacio Domenech-en liburuko errezetari erreferentzia egiten zaio. Horren ostean, Ana María Calera edo Juan José Lapitzek idatzitako liburuetan irakur daitezke liburu honen erreferentziak. Mikel Corcuera Ulaica, kritiko gastronomikoak, Tortilla Irundarraren inguruan egindako lana "Ondo Jan" aldizkarian argitaratu zuen 2018. urtean. Kritiko gastronomikoak artikuluan aipatzen duenez, Jaizubia jatetxe Irundarrean probatu dastatu zuen Tortilla Irundarra Jesús Mangas jatetxeko jabekide eta Manuel Iza sukaldariaren eskutik.

Osagai eta elaborazio sinplea

"Tortilla Irundarra egiteko osagaiak Bidasoa inguruko baratz eta mendietan aurki daitezke" Inaxio Muguruza Atalaiako sukaldariak azaldu duenez. Hauek dira Tortilla Irundarra egiteko beharrezkoak diren osagaiak: 8 arrautza, Bayona izenez ezagutzen den urdaiazpikoaren 200 g., 4 piper berde, tipula txikitu bat, 300g. onddo, perrexila, 2 baratxuri-ale eta gatza. Bayona urdaiazpikoa eskualdeko baserrietan egin ohi zen urdaiazpiko bigun eta goxoa da, usain berezia izan ohi zuena, txerriak baserri inguruko elikagaiekin elikatzen baitziren. Gainera, Tortilla Irundarra ogi txigortuarekin lagundu daiteke. Juan José Lapitz gastronomoak 2017. urtean hil aurretik aipatu zuenez, Irungo Alde Zaharreko Irureta jatetxean tortilla hau jan izana gogoratzen du, baina, aipatutako osagaiez gainera, bertan, ganbekin prestatzen zuten. "Tortilla Irundarra egiteko osagaiak Bidasoa inguruko baratz eta mendietan aurki daitezke", azaldu du Atalaiako sukaldariak.

Inaxio Muguruza Atalaiako sukaldariak

Osagaiak bezala, Tortilla Irundarra egiteko prozedura oso sinplea da. Inaxio Muguruzak azaldu duenez, lehen pausua baratzeko tipulin bat sueztitu behar da piper berdeekin batera. Piper berdea pipermin freskoekin ordezkatu daitekeela adierazi du Inaxiok. Jarraian, Erlaitz edo Jazikibel inguruan bildutako onddoak bota eta azken urratsa baserriko arrautzak gehitzea izango da. Inaxio Muguruza sukaldariaren ustez, errezeta honen sekretua osagaiak gutxi kozinatzea da.

Iraganetik orainaldira

Agustín Morate, Anaka Kofradiako ordezkariaren hitzetan, "iraganean Tortilla Irundarra Jaizubia, Irureta eta Morondo bezalako jatetxeetan jan zitekeen". Hortaz gain, Inaxio Muguruzak azpimarratu duenez, iragan hurbilean Tortilla Irundarra San Martzial eguneko hamaiketako gisa prestatzeko ohitura zegoen, nahiz eta gaur egun ekainaren 30ean jendeak aurreko egunetan prestatutako baratxuri zopak, kalimotxoa edo txistorra prestatzeko ohitura duen. Atalaiako sukaldariaren iritziz, eskualdean ibilbide luzea izan duten errezetak bizirik mantentzea oso garrantzitsua da. Izan ere, "Tolosako teila guztiok ezagutzen ditugu, baina, tristea da bertako jendeak Tortilla Irundarra zer den ez jakitea". Horretarako, Inaxio Muguruzak aipatu du, "sinpletasunean, hurbiltasunean eta kalitatezko produktuetan zentratu behar gara".

> **"Tortilla Irundarra egiteko osagaiak Bidasoa inguruko baratz eta mendietan aurki daitezke"**
> Inaxio Muguruza, Atalaia jatetxeko sukaldaria

Aro berri honetan, Tortilla Irundarra berriro Bidasoako mahaietara itzultzea da Anakako Kofradiako kideen eta Inaxio Muguruza sukaldariaren helburua. Tortilla Irundarra egiteko osagaien eta prozeduraren sinpletasunak errezetaren berreskurapenean lagundu dezakeela uste dute. "Adibidez, Real Unioneko Davided bere pintxoen arten Tortilla Irundarra sartzea asko gustatuko litzaidake", adierazi du Inaxio Muguruzak. Gainera, Tortilla Irundarra modu askotan aurkez daitekeela azpimarratu du Agustín Morate Anaka Kofradiako ordezkariak, platerean aurkezteaz gainera, Inaxio Muguruzak edalontzi txikietan sartzera ausartu baita. Era berean, pandemia iritsi aurretik hirian Tortilla Irundarraren aurkezpen bat antolatzeko asmoa zuten egitasmo honen bultzatzaileek, , baina, jardueraren antolaketari aurrerantzean ekin beharko diote berrio.

Txingudi Ikastola HH

Denborapasak

7 Hitz: Sanmartzialak

S	U	S	W	N	N	A	G	F	X	Y	B	I	S
M	K	S	W	K	Z	N	D	I	A	N	A	G	F
O	W	S	S	U	J	E	N	E	R	A	L	A	V
N	D	G	B	H	E	A	U	Z	W	C	B	G	C
J	M	E	R	E	L	A	P	X	Z	X	P	T	J
Y	R	Z	A	T	D	B	D	A	N	B	O	R	Q
F	X	U	T	X	N	R	C	J	L	V	V	V	V
W	B	N	A	A	A	R	Y	P	W	Y	Q	A	F
I	S	D	P	P	G	K	B	Q	M	E	X	K	X
D	K	E	L	E	N	H	C	E	W	R	S	L	S
V	F	D	A	L	H	I	B	Q	N	U	R	A	W
B	H	B	N	A	L	W	N	L	G	U	A	V	Z
K	A	N	T	I	N	E	R	A	J	O	L	O	Q
G	T	A	P	O	C	K	V	Z	W	N	V	Q	Q

Danbor, Jenerala, Rataplan, Jolo, Diana, Txapela, Kantinera

	9		6			5	3	4
8		4				9		7
		5			3	2		
	4					8		2
				4	6		1	9
				8		4	5	
6	5				2	7		
			8					
		9	7	5				

Euskaraz, Irunen barrena

Igual da, jo zala korneta

Bein, Burutaraneko baserriyak su artu zuen, eta biali zuten mutiko bat kalera bonberuan bila.

Allerrutik Xalbador bonberuan itxera galdetu zun:

–Xalbador emen bizi da?
–Bai, baño ezta itxian.
–Burutaranen sua dela, eta jotzeko korneta.
–Bañon eztago itxian...
–Igual da, jo zala korneta.

Irungo G.O.S., 62 urteko gizon kaletarrari jasoa. Oraindik bizi den Xalbadorrek berak kontatu zion duela hogei ta hamarren bat urte. Zuzenean hartua. (1960-VI-15). (El Bidasoa, 1960-VII-24)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

SVP DBH3

Durangoko azoka

San Vicente de Pauleko ikasleak Durangoko azokan egon dira.

2019ko abenduaren 5ean DBH 3ko ikasleak Durangora eguna pasatzera joan ziren. San Vicente de Paul ikastetxean abenduaren hasieran euskararen astea ospatzen da, beraz bertako ikasleek euskararen eguna ospatzeko Durangoko azokara joatea erabaki zuten.
Joan baino lehen euskarako ikasgaian bertan zer egongo zen aztertu zuten: zein idazle, abeslari, liburu, disko, gune...

Goizeko 9:00etan eskolatik irten eta 10:30etan DA-ra iritsi ziren. Lehenik eta behin, ikasleek tokia ezagutu zuten. Ondoren, Ahotsenean sortzaileen plazan Jon Urrutiaren Trakamatraka saioaz gozatu zuten. Hamaiketakoa jan ondoren, gune desberdinak ezagutu zituzten. Ikasleak taldetan banatu ziren, irakasleek prestatutako "ginkana" burutzeko. Taldeko irabazleek sari bat jaso zuten eta galtzaileek autobusean froga bat bete behar izan zuten.

13:00 aldera ikasleak bazkaltzera joan ziren. Bazkal ostean, denbora libreaz gozatu zuten: batzuk Durango Herria ezagutzera joan ziren, beste batzuk diskoak eta liburu desberdinak erosi zituzten. Adibidez, Izaro, Nogen, Kortatu, En Tol Sarmientoren, Zetak eta Berri Txarraken diskak eta Everest mendiaren, El Libro del Terrorismoren, Nur-en, Cómeme la Florren liburuak.

Arratsaldeko 16:30etan ikasleak poz pozik eskolara iritsi ziren.

Ikasle batzuen iritzi pertsonalak honakoak dira:
Joel Yubero "Hurrengo urtean bueltatzea espero dut"
Nora Eraso "Beste eskoletako ikasleak ezagutzeko aukera bikaina"
Nerea Bermejo "Abeslari berriak ezagutu ditut"
Lucía Cid "Trakamatraka saioa ikaragarri gustatu zait"
Maria Calderon "Nunca había oído hablar de DA, una experiencia increíble"
Heidi Rodriguez "Arlo desberdinetako liburu pila bat"

Bidasoa Frutak
HORECAKO BILTEGIA ETA BANAKETA
ZUREGANDIK GERTU: ESKEINTZA BEREZIAK
619213777 - 691216638

Junkaltxo
MAKOTTE JANARIAK
Janaria eramateko prest
Blas de Lezo, 22 - behe IRUN
Tel 943 61 36 70

Inklusioa bultzatzea helburu duten ekintzak prestatu ditu Aurreratu elkarteak udara honetarako

Txingudi badian bizi diren eta aniztasun funtzionala duten haur, gazte eta haien senideek osatzen dute Aurreratu elkartea. Konfinamenduko hilabeteen ostean, Aurreratu elkartetik udara ekintza inklusiboen bitartez gozatzeko hainbat proposamen antolatu dira. Udako hilabeteetarako antolatutako jarduerez gainera, Ohiane Hernandez eta Ane Martinez taldeko boluntarioek azaldu dutenez, ikasturtean zehar bestelako ekintza eta tailerrak martxan jartzeko asmoa dute.

Zein ekintza antolatu dituzue uztaileko hilabeterako?
Hainbat ekintza proposatu ditugu. Lehen ekintza mendi irteera bat izango da uztaiaren 4ean egingo duguna. Lehen ekintza honen helburua elkar ezagutzea izango da. Uztailaren 5erako, berriz, kirol ekintzak antolatzeko asmoa dugu. Uztailaren 11ean Donostin eguna pasako dugu, Aquariuma bisita gidatu batekin ezagutzeaz gainera, Santa Clara uhartera hurbilduko gara. Uztailaren 18an Irunen geldituko gara Oiasso Erromatar Museoa bisitatzeko. Uztailaren 18an, berriz, pasaia bisitatuko du eta uztailaren 26ean hilabeteari amaiera emateko udako jai berezia antolatuko dugu. Elkartetik antolatzen diren ekintza askotarako Palmera Montero eraikinean dugu gure egoitza.

Nork parte hartu dezake elkarteak antolatutako ekintzetan?
Aurreratu elkartetik antolatzen diren ekintzak elkarteko kide zein kide ez diren pertsonei zuzendurik daude, beraz, izen-ematea guztiz irekia da. Orokorrean, elkartean behar bereziak dauzkaten haur eta gazteekin lan egiten dugu, beraz, 30 urte arteko pertsonekin lan egin ohi dugu, nahiz eta adinari garrantzi berezirik ez eman .

Nolako ekintzak antolatzen dituzue?
Irun inguruko zonaldean ekintzak antolatzeko asmoa dugu lehenengo, jendeak nola erreakzionatzen duen ikusteko. Horren ostean, Hondarribia, Pasaia eta inguruko bestelako herri eta hiriak ere bisitatzeko asmoa dugu, elkartearen jarduera ezagutzera emateko. Gainera, udako hilabeteetara begira antolatutako ekintza asko aire zabalean egingo dira, udako eguraldi ona aprobetxatzeaz gainera, azken hilabeteetan zehar galdutako bizitasuna eta berriro kirola egiteko aukera aprobetxatzeko.

Nola lan egin duzue konfinamenduan zehar?
Konfinamenduan zehar, adibidez, antzeko elkarteek zabaldutako bideoen bitartez lan egin dugu. Hortaz gain, WhatsApp bidez elkarteko kideekin kontaktua mantendu dugu, ahal zen neurrian laguntzeko. Orain, normaltasun berriaren hasierarekin, elkarteak berriro jarduera berreskuratu eta ekintza berriak antolatzeko aukera ikusi dugu. Elkarteko kide diren haur eta gazteak zein haien familiak, honelako ekintzen antolaketa asko eskertzen dute. Era berean, haur eta gazteek egunero egin ditzaketen ekintzak antolatu nahi ditugu.

Bestelako elkarteekin lankidetzan aritzen zarete?
Ekintzak antolatzeko bestelako elkarteen laguntza ezinbestekoa da. Udaran, adibidez, HS2 elkartearekin lankidetza estua egiten da Aurreratu elkartetik, Iñaki Navascués y Miren Zabalak gidatutako programa berezien bitartez, elkarteko kideei surfa eta sup egokitua praktikatzeko aukera ematen zaie. Gainera, udaleku inklusiboak antolatzen dituzte eta Aurreratu elkarteko kideek bertan parte hartzen dute.

Nolako arrakasta izan ohi dute elkartetik antolatzen diren ekintzek?
Joan den urteko Gabonetan Gabonetako PIN-a bisitatzeko irteera antolatu genuen proba gisa. Oso irteera arrakastatsua izan zela ikusita eta gazteek oso ondo pasatu zutenez, konfinamenduaren ostean ekintza gehiago antolatzea erabaki genuen. Ekintzetan parte hartzeko izen-ematea irekita dago eta jada zenbait izen emate egin direla dakigu. Dena dela, zenbat jende apuntatzen den ikusi beharko dugu, egingo diren ekintzak zehaztu eta taldeak antolatu ahal izateko. Normaltasun berrian ekintzan antolatzen hasteko Covid-19aren inguruan sortutako protokolo bat jarraituko dugu. Protokoloa elkarteko familien arten partekatuko dugu, aurrerantzean hartuko diren segurtasun neurrien berri izan dezaten.

> **“Aurreratu elkartetik antolatzen diren ekintzak elkarteko kide zein kide ez diren pertsonei zuzendurik daude”**

Zein izan ohi da antolatutako ekintza jendetsuena?
Ekintza inklusiboak antolatzeko apustuaren barnean, Irungo Inauterietan parte hartzeko proiektuarekin hasi zela esan dezakegu. Duela 4 urte hasi ginen ekintza hau antolatzen, Evelin Gonzalez irakaslearen laguntzarekin. Ordutik urtero, gauzak hobeto egiteko ahalegin berezia egiten dugu. Urtero jende berri gehiago batzen zaigu eta esan beharra dago jendeak inplikazio handia erakusten duela antolatu beharreko gauzetan laguntzeko. Izan ere, material eta apaingarri guztiak eskuz prestatzen dituzte.

Boluntariotza ezinbestekoa da Aurreratu bezalako elkarteak aurrera ateratzeko?
Bai, Aurreratu elkartean boluntarioen lana ezinbestekoa da. Dena dela, behar bereziak dauzkaten elkarteko kideak zein haien senideak elkartearen jarduera aurrera ateratzeko edozertan laguntzeko prest daude. Elkartearen egoera nolakoa den ulertzen dute, beraz, ahal duten guztiarekin lagundu nahi dute beti.

Uda amaitu ostean, elkartetik ekintza berriak antolatzeko asmoa duzue?
Neguan, Ohiane psikoterapeuta denez, musikoterapia indibidualeko tailerrak antolatzen ditugu, elkarteko kideei haien gaitasunak garatzen laguntzeko. Horrela, pertsona hauen sozializazioa laguntzen saiatzen gara.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

IGazteren Buletin Elektronikoa

Egunean egon nahi al duzu enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi, boluntariotzari buruz?

Izena eman ezazu IGazteren buletinera, eta jasoko duzu zure postan! Interesatzen zaizun guztia zure eskura!

Irungo IGazte San Juan plazako CBA Kultur Gunean aurkituko duzu. Hortaz gain, zerbitzuaren webgunean, igazte@irun.org posta-elektronikoaren bitartez, 943 505 444 telefono zenbakira deituz edo Whatsapp aplikazioan 607 771 173 zenbakiaren bitartez harremanetan jarri zaitezke.

EHUren udako ikastaroen 39. edizioa

UPV/EHUko Uda Ikastaroek XXXIX. edizioa aurkeztu dute, helburutzat harturik bizi dugun egoera argitzea. Edizio berezia izango da, pandemiak sortutako egoerara egokitutako eduki berriekin eta online formatuekin.

www.uik.eus webgunean ikastaroen egitarauak eta informazio osagarria eskuragarri duzu.

COVID-19k eragindako egoera dela eta, programazioa aldatu ahal izango da osasun- eta segurtasun-neurrietara egokitzeko. Informazioa unean-unean eguneratuko da webgunean.

Online ikastaroa: "Europako Boluntariotza Proiektuak"

Europar Batasuneko Hezkuntza eta Kulturako Zuzendaritza Nagusiak garatutako Europako Elkartasun Kidegoa (EEK). Erasmus+, Gazteak Ekinean programen barruan aureikusitako jardueren esparruan, KAEBANIk, Gipuzkoako Foru Aldundiaren koordinaziopean, Europako Boluntariotza Zerbitzuaren/ Europako Elkartasun Kidegoaren prestakuntza-ikastaro hau antolatu du, Gipuzkoako gazteentzat.

Noiz: 2020ko uztailaren 13tik 17ra.

Nori zuzendua: EEK/EBZ programan parte hartu nahi duten gazte boluntarioak.

Adina: 17 - 30 urte arteko gazteei.

Udalekuak

Online udalekuen barnean, Laura Suarezen eskutik zinu-hizkuntza ikasteko aukera izango duzu (https://www.larasuarez.es).

Talde bakoitzeko 9 ikasle onartuko dira gehienez.

Datak: Uztaila 6tik 10era eta uztailaren 3tik 17ra.

Ordutegia: Goizeko 10:00etatik 13:30etara.

Gazte-txartelak Clínica Bavieraren eguzkitako betaurrekoak zozkatzen ditu

Udara ate joka daukagu... ondo etorriko zaizkizu eguzkitako betaurrekoak, detailerik txikiena ere ez galtzeko! Eta gogoratu, Klinika Bavierak 120€ko beherapena eskaintzen dizu laser bidezko kirurgia refaktiboan eta lehenengo kontsulta dohainik!

Zer zozkatuko dugu? 5 eguzkitako betaurreko.

Parte hartzeko modua: Bete formularioa zure datuekin (azken eguna: uztailaren 12a)

Irabazleei jakinaraztea: Telefonoz eta ondoren e-mailez jakinaraziko zaie zozketa-egunaren ondorengo bi eguneko epean.

Betaurrekoak non eta noiz jaso behar dira? Zozketa irabazten dutenek beren etxean jasoko dituzte betaurrekoak, mezulari bidez.



Uztailak

3

Sistiaga Mosso erakusketara bisita gidatua

Zer: José Antonio Sistiagaren obrak biltzen dituen erakusketara bisita gidatua.

Non: Menchu Gal erakusketa aretoan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doakoa.

Gonbidapenak eskuratzeko: cultura@irun.org helbide elektronikora idatzi edo 943 50 54 08 telefono zenbakira deitu.

Oharra: Helena Elbusto komisarioak zuzenduko du bisita gidatua eta bisitariak Vega de Eguzkitza kaletik sartu beharko dira erakusketa aretora.

12ra arte

Erakusketa Sistiaga Mosso

Zer: José Antonio Sistiagaren lanak biltzen dituen erakusketa bisitatzeko aukera.

Non: Menchu Gal erakusketa aretoan, Vega de Eguzkitza kaletik sartuz.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara.

Sarrera: Doan.

15

Bidasoa Bizirikek antolatutako "webinar"-a

Zer: 'Nola diseinatu Covid-19ak eragindako krisia gainditzeko balio proposamen bat?' ikastaroa, Ekin Asteazkenetan programaren barruan kokatzen da.

Ordua: 10:00etatik 12:00etara.

Izen-ematea: www.bidasoa-activa.com webgunearen bidez edo 943 509 600 telefonora deituz.

Irakaslea: Jose Maria de la Torre enpresari, aholkulari eta hainbat negozio eskoletako irakaslearen eskutik.

19ra arte

Erakusketa: "Emozioak paperean"

Zer: San Pedro eta San Martzial jaietako kartelen eta egitarauen bilduma, 1906tik 2020ra.

Non: Amaia Kultur Zentroko Erakusketa Aretoan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara; igande eta jaiegunetan 11:30etik 13:30era. Astelehenetan itxita.

Sarrera: Doan.

Igandeetan

Irungo Tourra

Zer: Oiasso Erromatar Museoak hirian aurkitutako erromatar garaiko aurkikuntza arkeologikoak ezagutzeko bisita antolatzen du "Tour Irun Roma" aplikazioaren bitartez.

Noiz: Igandero.

Ordua: Goizeko 11:00etan.

Iraupena: Ordu eta erdi, gutxi gorabehera.

Prezioa: 5,50 euroa helduek eta 3,85 € 6 urtetik gorako haurrak.

Irailaren 30era arte

Erakusketa: Kostaldeko Euskal Sukaldaritza

Zer: Erromatar sukaldaritzak globalizazioaren ondorioz izandako garrantzia islatzen duen erakusketa.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 10:00etatik 20:00etara, eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara.

Sarrera: Doakoa.

Bisita gidatuak: Astearteetan 11:00etan eta ostegunetan 18:30etan, 3 euroko sarrera ordainduz gero.

Denbora-pasen emaitzak

S	U	S	W	N	N	A	G	F	X	Y	B	I	S
M	K	S	W	K	Z	N	D	I	A	N	A	G	F
O	W	S	S	U	J	E	N	E	R	A	L	A	V
N	D	G	B	H	E	A	U	Z	W	C	B	G	C
J	M	E	R	E	L	A	P	X	Z	X	P	T	J
Y	R	Z	A	T	D	B	D	A	N	B	O	R	O
F	X	U	T	X	N	R	C	J	L	V	V	V	V
W	B	N	A	A	A	R	Y	P	W	Y	O	A	F
I	S	D	P	P	G	K	B	O	M	E	X	K	X
D	K	E	L	E	N	H	C	E	W	R	S	L	S
V	F	D	A	L	H	I	B	O	N	U	R	A	W
B	H	B	N	A	L	W	N	L	G	U	A	V	Z
K	A	N	T	I	N	E	R	A	J	O	L	O	O
G	T	A	P	O	C	K	V	Z	W	N	V	O	O

1	9	2	6	7	8	5	3	4
8	3	4	1	2	5	9	6	7
7	6	5	4	9	3	2	8	1
5	4	6	3	1	9	8	7	2
2	7	8	5	4	6	3	1	9
9	1	3	2	8	7	4	5	6
6	5	1	9	3	2	7	4	8
3	2	7	8	6	4	1	9	5
4	8	9	7	5	1	6	2	3

“Ikasi dut berraktibatzea elkartasunetik etorriko dela”.
Nerea Ibáñez
ASPEGI
Ekonomia. Ostalaritza, turismoa, bertako komertzioa, industria... Gelditu egin gara, baina inoiz baino argiago dugu ‘errealitate berrira’ itzultzea Gipuzkoa osatzen dugun norbanako bakoitzaren esku dagoela.
#AurreraEgitekoGogoratu
Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro